

## **EUSKO JAURLARITZAKO OGASUN SAILAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIA BEHATOKIA MARTXAN JARRI DU**

Lehenengo lan jardunaldia asteazken honetan egingo da, **Emilio Fontela** irakasleak parte hartuko duela. Bertan, makroekonomia eta sektorekako ikuspuntuetatik Euskadiko eta Nazioarteko koiuntura aztertuko da.

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomiko Sailburuordetzaren bitartez, Euskal Autonomi Erkidegoko **Ekonomia Behatokia** abiarazi du. Behatokiaren lehenengo jardunaldi teknikoa asteazken honetan, ekainaren 9an, egingo da Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Lakuan.

EAEko Ekonomia Behatokia hausnarketarako gune bilakatzen da, non sei hilabete behin egingo diren bileretan, nazioarteko ekonomian adituak eta Euskadiko sektore ezberdinetako ordezkariak elkartuko diren koiunturaren eta aurreikusitako eszenategien analisiak elkartrukatzeko.

Behatokiaren lan jardunaldi guztietan Euskal Administrazioakoak ez diren ospe handiko ekonomistek parte hartuko dute nazioarteko eta estatuko ekonomiaren egoeraz hitz egiteko; bestalde, Eusko Jaurlaritzako adituek Euskadiko koiuntura aztertuko dute, eta euskal ekonomiaren zenbait sektoretako ordezkariak euren hausnarketa azalduko dute dagokien ikuspuntutik.

Asteazken honetan(\*), ekainaren 9an, atek itxitako lehenengo jardunaldia egingo da, eta sektore oso ezberdinetako adituak bertaratuko dira, finantzak, industria energetikoa edota ingurugirokoak, besteak beste. Guztira hogeita enpresa edo talde ezberdinetako partaideak izango dira, tartean BBVA, GAIA, Ingurugiroko Klusterra, HEGAN, SPRI, FAGOR, Ezagupenaren Klusterra, IDOM, Confebask eta Ekonomia eta Gizarte Kontseilukoak jardunaldi hasieran eskainiko diren hitzaldietan luzatuko diren gai garrantzitsuenetaz eztabaidatzeko.

### **Egitaraua**

11.30 Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomiko Sailburuordeak, **Manuel Urquijo**, Euskadiko Ekonomia Behatokia aurkeztuko du.

11.45 **Emilio Fontela** irakasleak nazioarteko koiunturari buruz hitz egingo du.

12.15 EAEko koiunturaren eta aurreikusitako eszenategien aurkezpena egingo du **Xabier Pascual**, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Zuzendaritzaren ekonomistak.

12.45 Ekonomiaren sektoretako adituen hitzaldiak:

Aurrezki Kutxen Federazioa (Pedro Martínez de Alegría)

Makina Erreminta (Alberto Ortueta)

Automobilgintzako Klusterra (Antonio Reche)

MCC (Francisco Ispizua)

ASCONGI-ADEGI (Paul Lizeaga)

13.35 **EZTABAIDA TARTEA**

**(\*) OHARRA**

Lan jardunaldia **ateak itxita** izango da. Hala ere, jardunaldiari buruz informazioa zabaldu edota elkarrizketarik egon nahi izanez gero, komunikabideek **945 01 81 66** telefono zenbakira dei dezakezue

Vitoria-Gasteiz, 2004ko ekainaren 8an